

2006ko martxoaren 11.alea**HAURRESKOLETAKO EGUTEGIA.**

Benetan diogu: LABek ez du ulertzen zer dela eta puztu den orain, bat-batean, haur eskoletako zerbitzua 221 egunetara luzatzeko “behar” hau. Aralarrek aurkeztu zuen ez legezko proposamena, eta gainontzeko guztiek, EHAKk izan ezik, baiezkota eman zioten gaia hausnartzeko betarik hartu ere egin gabe. Besteak beste, aintzakotzat hartu beharko lukete:

1.- Egutegia luzatzeaz hitz egiten denean, albo batera uzten dira irizpide pedagogikoak. Izan ere, haur eskolen borroka historikoa izan da onartzea beren izaera hezitzailea, eta horretarako baldintzak bermatzea. Orain, izaera hezitzailea alboratu, eta asistentziala bultzatu nahi da.

2.- Nola kudeatuko lirateke 9 egun horiek? Haurrak beste zentro batean “pilatuz”? Non geratuko litzateke haurren egokitzapen prozesua eta erreferentziazko pertsona? Ordezkoek zein kontratu mota izango lukete? Nola banatuko lirateke lan egunak eta jai egunak? Zalantza gehiegi eta serioegiak arinkeriatan aritzeko!

3.- Egia da haur eskolek familia eta lan mundua bateratzeko helburua ere badutela. Baina 221 egunetara luzatuta ere ez da helburu hori bermatzen. Izan ere, esaterako, bi urtetik gorako haurrek 176 eskola egun dituzte. Beste etapetan ez al da arazorik sortzen? Zein eraginkortasun izango luke neurri honek kontutan hartuta Haurreskolak Partzuergoan 1.914 haur direla, eta 2004ean 19.600 jai zirela?

Begi bistakoa da bestelako neurriak direla beharrezko, besteak beste, gurasoen lan baldintza eta baimenen arloan.

4.- Sinatu berri den hitzarmenak halaxe dio: “familiei eskainiko zaien urteko egutegia izango da 212 egunetan irekia egotea”. Beraz, hitzarmena berriz ere negoziatu gabe, ezinezkoa izango litzateke egun kopuru hori luzatzea.

Halako interesa ikusi nahiko genuke guk hezitzaileen lan baldintzen inguruan borrokan jardun genuenean, edota eraikuntza eta hornikuntza aldetik hobekuntzak aldarrikatzen ditugunean, edo kalitatezko proiektu pedagogikoak aurrera ateratzeko baldintzak (formazioa, koordinazioa eta ratioak) aldarrikatzen ditugunean... Non geratzen da orduan alderdi politiko horien kezka “etaparen izaera hezitzailea indartzeko eta kalitatezko hezkuntza eskaintzeko”?

LABen ustez benetako eztabaida kontu horietan dago. Eztabaida, eta erronka.

www.labsindikatu.org

	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Bueno Montreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde Zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 472 709 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org